

Hidrogenoaren Euskal Korridorea eratu dute 75 erakunde eta enpresak

Sei urtean 1.300 milioi euro inbertitu nahi dituzte, eta 8.000 lanpostu sortu, horietatik 1.340 zuzenekoak • Hidrogenoarentzako gasbide bat eraiki nahi dute Bilboko portutik Zorrotzaurreraino

Irune Lasa

BH2C Hidrogenoaren Euskal Korridoreak mugarri izango duen pauso bat eman du. Bilboko Euskalduna jauregian, Elkarlanerako Memoranduma sinatu zuten atzo 78 erakundek, eta, horren bitartez, erakutsi zuten parte hartuko dutela proiektu handi honetan. Horietako sei erakundeak dira; hamabi, zentro teknologiko eta garapen zentroak; eta gainerako 58ak enpresak dira, asmoa dutenak proiektu batean edo batean baino gehiagotan parte hartzeko. Horien artean daude Petronor, Nortegas, Sener, Sidenor, Ingeteam, CAF, Irizar, Ampo, Murueta, Erreka, Tubacex eta Tubos Reunidos.

BH2C egitasmo handia da, 1.300 milioi euro inguruko inbertsioa egingo baitu 2020 eta 2026 bitartean. Zuzenean gutxienez 1.340 enplegu sortu nahi ditu, eta zeharka, beste 6.700. Asmoa da urtean 20.000 tona hidrogeno ekoiztea, eta karbono dioxido isuriarik urtero milioi eta erdi tona murriztea.

«Industriaren aldeko apustua da», esan zuen Emiliano Lopez

HIDROGENOAREN KORRIDOREA



ITURRIA: BERRIA

Atxurra Petronorreko presidenteari, «elkarrekin egin beharrek», onartu zuen ez dela erraza hidrogenoaren inguruko ekonomia bat sendotzea, eta ahalegina eta bultzada publikoa eskatuko duela. «Ez da marketin distiraldi

bat; eta ez gara ekonomia finantzarioaz ari». Lopez Atxurraren arabera, «jabetuta egon behar dugu kokapen geografiko pribilegiatua dugula. Atlantikoko euroeskualde baten ardatz teknoin-dustrialia gara».

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako sailburuak ere azaldu zuen Europar gertatzen ari den mugimenduaren parte gisa ulertu behar dela korridorea. Europako funtsetarako hautagai sendoa da

BH2C, «eta hortik dirua badator, ondo etorriko da aurrera bizkorrago egiteko, baina egin egingo da dirurik ez badator ere».

Europako funtsei dagokienez, baikor egoteko arrastoak eman ditu Raul Blanco Espainiako In-



Jabetuta egon behar dugu Atlantikoko euroeskualdeko ardatz teknoin-dustrialia gara!»

Emiliano Lopez Atxurra
Petronorreko presidentea

«[Euren funtsa] Ondo etorriko da bizkorrago egiteko, baina egin egingo da dirurik ez badator ere»

Arantxa Tapia
Ekonomiaren Garapenerako sailburua

dustriako idazkari nagusiak, esan baitzuen Euskal Korridorea «mugarri bat» dela, eta «lehen lerroan» egongo dela «Erreku-perazio, Eraldatze eta Erresilientziarako Planaren esparruan gertatuko den guztian».

PROIEKTUAK

Hidrogenoaren korridorearen egitasmoa 78 erakunde batu dira «aktiboki», baina, BH2Cren koordinatzaile Jose Ignacio Zudairek azaldu duenez, beste 50 bat enpresa «gogoeta fasean» daude, beren estrategietan hidrogenoa garrantzitsua izan daitekeen azterten. Oraingoz, 34tik gora proiektu zehatz gutziak ditu BH2Ck, eta hein batean guztiak daude lotuta.

Hidrogeno ekoizpena

Petronorren beraren hiru proiektu handiak daude korridorearen proiektuaren atal horretan: hidrogeno berriztagarriaren ekoizpena, bai elektrolisi bidez (hiru elektrolizagailu), bai hondakinen pirolisaren bidez; eta erregai sintetikoen ekoizpena probatzeko lantegia.

Elektrolizagailuak Muskizko findegiaren egongo dira; beste bi plantak, berriz, Bilboko portuan.

Mugikortasuna eta banaketa

Ibilgailuentzako hidrogenoa banatzeko abiaburua Abantoko parke teknologikoan egongo litzateke, non hidrogeno kargaleku bat jarriko luketen, «gero beste lurraldeetan kokatuko liritekeen hiru kargaleku zerbitzatzeko asmoarekin». Aldundiek hidrogeno bidezko autobusak erosi dituzte. Abantoko kargalekuaren proiektua, gainera, laborategi moduko bat ere izango da, presio handiaren teknologien faseen entsegurako. Bilboko portuan egongo da mugikortasunari eta banaketari lotutako korridorearen beste gune garrantzitsua, asmoa baita itsasontziak argindarrez hor-

nitzea, hidrogeno erregai-pilak eta hidrogenoa bera erabiliz. Aire-portuan ere badago proiektua, hango makineriak erregai pilak erabiltzeko.

Deskarbonizazioa industrian eta berokuntzan

Petrolio finitzeko prozesua deskarbonizatuz joan nahi du Petronorrek, hidrogeno berdearekin eta pirolisitik aterako emisio txiki hidrogeno berriztagarriarekin. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gas sarea deskarbonizatzekeko plan estratejiko bat ere egingo du Energiaren Euskal Erakundeak, hain zuzen, hidrogenoak horretarako ematen dituen aukerak aintzat hartuta. Elektrolisi bidez ekoiztutako hidrogenoaren konpresioa ekoizpen prozesuan erabiltzeko

modua ere aztertuko du proiektu batek.

Azpiegiturak

Korridoreak «parte fisikoa» izango du. Hidrogenorako tutu berriak egitea aurreikusten da: kanalizazio bat elkarri lotzeko Petronorren findegi, Abantoko parke teknologikoa, Bilboko portua eta Zorrotzaurre, non hidrogenoaren etxebizitzetarako erabilerak aztertu nahi dituzten. Hidrogenoak gas banaketarako sareetan izan dezakeen porteara aztertzeko proiektu bat ere bada: besteak beste, nola nahastu daitezkeen gasak eta hidrogenoa.

Garapen teknologikoa

Zerrenda honetan daude BH2Cko hamazazpi egitasmo; elektrolizagailuen fabrika handi bat; industria aplikazioetarako belaulaldi berri-

ko elektrolizagailuen garapena eta eskalatzea; hidrogeno ekoizteko sistemak garatzea; bioerregaietarako erreformagailu bat, metanotik hidrogenoa sortzeko; hidrogeno garraiatzeko proiektuak; ibilbide luzeetarako erregai piletan oinarritutako autobusak; trenak, ibaietarako itsasontziak; hidrogenoaren aplikazioak altzairugintzan, eta aplikazioak labeetan.

Ekinaldiaren eragileak

Egitasmoan daude Abantoko Parke Teknologikoa, Energiaren Klusterreko Hidrogenoaren Sektore Foroa, Hidrogenoaren Zentro Teknologiko birtuala, eta hidrogenoari buruzko ikastegia ere. Korridorearentzat oso garrantzitsua izan daitekeen tresna bat azterketan dago: Hidrogenoaren Harana Garatzeko Funtsa.